

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

212/2020 Foru Agindua, urriaren 14koa. Justifikazio epea luzatzea udalek eta kuadrillek sustatutako kultura jardueretarako dirulaguntzen 2020ko ekitaldian

Martxoaren 13ko 68/2020 Foru Aginduaren bidez, onespena eman zitzaion udalek eta kuadrillek sustatutako kultura jarduerak egiteko norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko 2020ko deialdi publikoari. Foru Agindu hori ALHAOn argitaratu zen, 60. zenbakian, 2020ko maiatzaren 29an.

Deialdiaren bederatzigarren klausulan “Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea”, egiaztagiria aurkezteko bi epemuga ezarri ziren:

– Urriaren 1a baino lehen amaitzen diren kultura ekintzen frogagiriak aurkezteko azken eguna 2020ko urriaren 30a izango da.

– 2020ko azken hiruhilekoan amaitzen diren kultura ekintzen frogagiriak aurkezteko azken eguna 2020ko abenduaren 18a izango da.

COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz, eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onetsi ondoren, zeina martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak aldatu baitzuen, administrazio epeak eten ziren, eta berriz ere hasi dira 2020ko ekainaren 1ean. Bada, udalek eta kuadrillek sustatutako kultura ekimenetarako dirulaguntzen deialdira eskaerak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 30ean amaitu zen.

Hori guztia dela eta, deialdi honen izapidetzeari eta ebazpenari ere eragin die, hain zuzen, ebazteko eta jakinarazteko epeei eta, hortaz, ez da nahikoa emandako dirulaguntzak justifikatzeko eta egiaztatzeko ezarritako lehenengo data, urriaren 30a.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duenak, 70. artikuluan “Justifikazio epea luzatzea” xedatzen duenez, dirulaguntza ematen duen organoak egiaztagiria aurkezteko ezarritako epea luzatu ahal izango du, oinarri arautzaileetan besterik ezarri ezean, luzapenaren iraupena epearen erdia baino luzeagoa ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak honako hau xedatzen du II. kapituluko “Epe mugak eta epeak” 32. artikuluan “Epea luzatzea”: “Administrazioak, ofizioz edo interesdunek eskaturik, luza dezake ezarritako epea, manuren batek kontrakoa ez badio, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere. Epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie”.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

2020ko abenduaren 18ra arte luzatzea 2020ko urriaren 1a baino lehen amaitzen diren kultura ekintzen frogagiriak aurkezteko ezarritako lehenengo epea, udalek eta kuadrillek sustatutako kultura jardueretarako dirulaguntzen 2020ko deialdian, zeina martxoaren 13ko 68/2020 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 14a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria
M^a INMACULADA SÁNCHEZ ARBE